



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2019KO OTSAILAREN 28AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko otsailaren 28an arratsaldeko 17:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Aitor Arangoa, Xabier Azpiroz, Bakartxo Ripalda eta M^a Mar Ansorena.

17:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.

2019ko urtarrileko ohiko batzarreko akta deialdiarekin batera bidali da eta bildutakoek aho batez onartzen dute.

2.- Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

-2019/12 alkate ebazpena otsailaren 15ekoa Hezkuntza Departamentura zuzendua 2018/956 ebazpen bidez araututako dirulaguntza deialdia Haur Hezkuntzako eskolako eraikinak berritzeko ikusita eta Oihanzabal eskolako ballazko itxidura perimetrala berritzeko aurrekontua, onartzea Oihanzabal eskolako ballazko itxidura perimetrala berritzeko memoria, 25.275 euro BEZ barne. Dirulaguntza jasotzen bada gehienez %65koa da.

- 2019/13 alkate ebazpena urtarrilaren 30ekoa Juan Vildarrazi zuzendua onartuz egindako zaharberitzeko dirulaguntza eskaera Udabeko 1. Poligonoko 4. Lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua eraberritzeko, dirulaguntza 479,96 eurokoa izanik.

- 2019/14 alkate ebazpena otsailaren 1ekoa, Angus Carnes Premium empresari zuzendua, onartuz, Ekainaren 23ko 2003/148 foru dekretuaren 11. artikuluari jarraiki iharduera EZ KALTEGARRIA dela Gartzarongo 6 poligonoko 66 lursailean 37 txekor jartzea eta Angus Carnes Premium enpresari, iharduera baimena ematea.

- 2019/15 alkabe ebazpena otsailaren 1ekoa Jose Manuel Arano Lanpreaberi zuzendua, onartuz, Ekainaren 23ko 2003/148 foru dekretuaren 11. artikuluari jarraiki iharduera EZ KALTEGARRIA dela Berueteko 12 poligonoko 580 lursailean 6 ahuntz jartzea. eta Jose Manuel Arano Lanpreaberi iharduera baimena ematea.

- 2019/16 alkate ebazpena otsailaren 4koa Berueteko kontzejuari zuzendua obra baimena emanaz Berueteko ostatuko barruko eraberritzeko obrarako aurrekontua 61.710,20 eurokoa.

- 2019/17 alkate ebazpena otsailaren 6koa Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari zuzendua baimena emanaz otsailaren 5etik eta Berueteko ostatuko obrak bukatu harte, asteartetan, Apeztegi berriko adinduen gela erabiltzeko arratsaldeko 16.30etatik 19:30etara eskulanen ikastaroa egiteko.

- 2019/18 alkate ebazpena otsailaren 7an Alba Pradosi zuzendua baimena emanaz Kultur Etxeko gela handia erabiltzeko Boxeo entrenamendua egiteko , egun etaordutegi honetan: ostegunetan 20:00 etatik 21:00 tara .

- 2019/19 alkate ebazpena otsailaren 7koa Jorge Diezi zuzendua baimena emanaz Kultur Etxeko gela erabiltzeko "Ekimen artistico" bat burutzeko , egun eta ordutegi honetan:ostegunetan goizeko 10etatik 13etara.

- 2019/20 alkate ebazpena otsailaren 14koa Aiora Epelderi zuzendua Ekainaren 23ko 2003/148 foru dekretuaren 11. artikuluari jarraiki iharduera EZ KALTEGARRIA dela Aizarozko 10 poligonoko 32 lursailean 5 txerri jartzea eta baimena ematea iharduera ez kaltegarriko.

Bildutakoak ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

3.- UEMA.Basaburuko udaleko erabilera plana.

Alkateak adierazten du UEMAko teknikariarekin egin zela bilera eta aurkeztu zuela erabilera plana, Honen helburu estrategikoak hauek dira:

- Euskara zerbitzu hizkuntza izanen da herritarrekiko harremanetan.
- Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza izan dadin bermatu.
- Euskara administrazio barne hizkuntza izatea bermatzea.
- Udal instalazioetan jarrera proaktiboa izatea, herritarrei euskaraz egiteko gonbidatuz.
- Udalak antolatutako ekitaldietan euskara erabiltzea.
- Web orriko nabigatzailea euskarazkoa izatea bermatu.
- Udal aplikazioa euskaraz izan udal bulegoetan
- Hautaketa prozesuetan euskarazko probak sartu.
- Beste erakundeekiko harremanetan euskara bultzatuko da.
- Euskararen erabilera plana bultzatu eta kudeatzeko jarraipen batzordea osatzea.

Hauek guztiak ikusita Basaburuko udaleko udal batzarrak onartzen du aho batez UEMAk Basaburuko udalerako prestatutako erabilera plana.

4.- Internet zerbitzua. Operadoreekin hitzarmena.

Alkateak azaltzen du Basanet elkarte merkantila sortzeko tramitazioa oraindik bukatu gabe dagoela, gaur eraman dira eskritura berriak Erregistro Merkantilak eskatzen zituen zuzenketekin, eta bitartean operadoreekin hitz egingen da, sarean probak egiteko. Horretarako Komunikazio Batzordean operadoreekin hitzarmen bat sinatzea adostu zen eta irakurtzera ematen du alkateak hitzarmen hau, ondoren transkribatzen dena:

“Reconociéndose ambas partes mutuamente la capacidad, la representación y la legitimación necesarias para formalizar este Convenio de Colaboración,

El Ayuntamiento de Basaburua, siendo consciente de la gran dificultad que tienen las empresas operadoras para desplegar sus servicios en zonas rurales y de población dispersa, está realizando un importante esfuerzo para dotar de una red de fibra óptica, para distribución telemática de gran capacidad, a todos los vecinos de Basaburua.

Es objetivo prioritario de este Ayuntamiento el acabar con la brecha digital que sufre Basaburua frente a ciudades y municipios de mayor población.

Es por ello que este Ayuntamiento dispone de un plan para desplegar a todas las viviendas de cada uno de los concejos que forman el Municipio, una red de fibra desde la cual distintas operadoras puedan ofrecer sus servicios.

En una primera fase se desplegó fibra en los Concejos de Aizarotz, Gartzaron e Itsaso, con el objeto de recibir señal desde un punto principal y trasladar esta a todas las viviendas interesadas.

Para otra segunda fase, esta proyectado el despliegue para los Concejos de Udabe-Beramendi, Igoa, y Orokieta-Erbiti.

Es de especial interés para este Ayuntamiento el comprobar el correcto funcionamiento de las instalaciones realizadas y conocer las posibles incidencias, velocidades de servicio, zonas de sombra, o cualquier otro problema técnico que pueda surgir para poder solventarlo en las instalaciones realizadas y preverlo para las próximas instalaciones en el resto del Municipio.

Es por ello y con estos objetivos por lo que se suscribe este convenio de acuerdo con las siguientes

ESTIPULACIONES

PRIMERA. - Objeto.

Es objeto de este convenio el testar el correcto funcionamiento de las instalaciones de despliegue de fibra óptica en los Concejos de Gartzaron, Aizarotz e Itsaso; detectar posibles incidencias y conocer velocidades de servicio, zonas de sombra, o cualquier otro problema técnico que pueda surgir para solventarlo en estos concejos y preverlo para próximas instalaciones del resto del Municipio.

SEGUNDA. - Derechos y Obligaciones de la Operadora.

a) Con el objeto de comprobar las instalaciones de fibra desplegadas en estos tres Concejos, la operadora podrá ofertar contratos provisionales con usuarios que puedan estar interesados.

b) En estos contratos se deberá dejar claro su carácter “provisional” o “contrato de prueba” y no estarán sujetos a permanencia alguna.

c) Dado su carácter de “testeo de red” y la duración imprecisa de este acuerdo, la operadora acuerda no aplicar ninguna tasa de alta al usuario mientras dure este acuerdo.

d) La operadora, deberá colocar un sistema de monitorización del servicio prestado que permita conocer el servicio ofrecido.

e) La operadora mensualmente estará obligada a pasar un informe en el que se detallan servicios prestados, instalaciones usadas, incidencias, deficiencias, sombras o cualquier otro tema que pueda resultar de interés para la puesta a punto de la red de fibra a fin de optimizar el servicio.

f) La operadora tendrá el derecho a utilizar todas las instalaciones de fibra desplegadas en los Concejos de Aizarotz, Gartzaron e Itsaso, durante la duración del presente convenio. Cuando por las causas que fueran el presente convenio quedara finalizado, la operadora suspenderá todos los usos de dicha red en fecha de finalización y restituirá su uso al Ayuntamiento en perfecto funcionamiento.

g) Así mismo, la operadora, deberá solicitar los permisos y licencias necesarias para colocar las antenas y unidades receptores que le fuesen necesarias para el despliegue del servicio.

f) Sin perjuicio de lo dispuesto en las restantes cláusulas del presente Convenio de colaboración, la operadora se obliga a cumplir en la ejecución del mismo las siguientes obligaciones: Estar al corriente en el pago de todas las cuotas, impuestos, seguros, salarios y, en general, en todas las obligaciones sociales y laborales que le correspondan como profesional y/o empresario, relevando por estos conceptos de

toda responsabilidad al Ayuntamiento, quien en todo momento podrá solicitar de la operadora que le acredite el cumplimiento de tales obligaciones.

h) La operadora deberá permitir el examen, control e información de los servicios en todo momento al Ayuntamiento, por sí o por persona que éste pueda designar.

TERCERA. - Derechos y Obligaciones del Ayuntamiento

- a) El Ayuntamiento permitirá el uso de las instalaciones de fibra de los Concejos de Aizarotz, Gartzaron e Itsaso para el testeo y puesta a punto de la red de fibra óptica.*
- b) Así mismo, facilitará todos los permisos y licencias necesarias para completar la instalación con los emisores y receptores que sean necesarios, siempre que las solicitudes recibidas de parte de la operadora cumplan con todos los requisitos legales que le correspondan.*

- c) Tendrá derecho a percibir los informes mensuales de testeo de la red, en la primera semana del mes siguiente, convenientemente explicados por parte de la operadora, que aportará sugerencias de mejora, si lo viera necesario.*

CUARTA. - Duración del Convenio.

El presente Convenio tendrá un periodo de vigencia máximo de un año, que podría ser prorrogable por acuerdo de ambas partes.

QUINTA. - Extinción del Convenio.

El convenio se extinguirá por incumplimiento de las obligaciones de cualquiera de las partes o por decisión de cualquiera de las partes fundamentada en la existencia de causas que obstaculizan el cumplimiento del convenio, previa denuncia realizada por escrito con una antelación mínima de un mes,

El Ayuntamiento podrá igualmente resolver el presente Convenio, de forma unilateral, previo aviso con un mes de antelación, una vez que considere que las instalaciones están ya dispuestas y se proceda a su puesta en publico mediante el procedimiento que corresponda.

SEXTA. – Garantías.

En garantía del adecuado uso de la red de fibra óptica que el Ayuntamiento pone a disposición de la operadora para su testeo, así como del cumplimiento del resto de sus obligaciones contractuales, la operadora deberá de aportar a la firma de este convenio un seguro de responsabilidad que cubra el total de las instalaciones realizadas en el periodo de vigencia del mismo.

SEPTIMA. – Confidencialidad.

La operadora se compromete a mantener toda la información que le sea suministrada por el Ayuntamiento en virtud del presente Convenio, así como la información obtenida de terceros mediante la recogida de datos, en secreto y a no revelarla a ninguna persona física o jurídica, con la única excepción del personal de su plantilla a cargo de los trabajos, de tal forma que no llegue a ser conocida por terceros ni siquiera debido a negligencia y a no reproducir, transformar y en general, hacer uso de dicha información sino con objeto de dar el debido cumplimiento a los servicios del presente convenio.

OCTAVA. – Jurisdicción.

Respecto a cualquier disputa o desacuerdo que pueda surgir entre las partes sobre la interpretación del presente Convenio de Colaboración, o sobre su cumplimiento, con renuncia expresa a cualquier otro fuero que pudiera corresponderles, se someten a la jurisdicción y competencia de los Juzgados y Tribunales contencioso-administrativos de Pamplona.

Y como prueba de conformidad, firman el presente Convenio por duplicado ejemplar y a un solo efecto, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento. “

Momentuz Sisnet empresa eta Wikai empresa daudela interesatuak adieratzen du alkateak eta beraiei eskeiniko zaie lehenik hitzarmena sinatzea. Hitzarmen honen sinaketa edozein operadorei zabaldua dago.

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute, hitzarmenaren irakurketa eta azterketa egin ondoren:

- **Onartzea internet zerbitzua eman nahi duten operadoreekin sinatu beharreko elkarlan hitzarmena eta hitzarmen hau sinatzeko, Basaburuko Udaleko alkatea den Esther Lacasta Perez Ilzarbe ahalmentzea.**

5.- 2017-2019 Tokiko Azpiegitura Plana. Banda zabalaren proiektua

Alkateak adierazten du banda zabalaren proiektuan azken aldaketa bat sartu zela Eurovelozen obraren zatia kontutan hartzeko, eta horrek finantzaketa plan berria onartzea eskatzen zuela. Finantzaketa plan berri hori Nafar Gobernura martxoaren 5erako bidali behar da.

Gaia aztertu ondoren bildutako en artean eta ikusita, banda zabalaren proiektua garatzeko hasierako aurrekontua, eta azkeneko gastuen aurrekontura iritsi arte, udalak bere gain hartu behar duen defizita asko igo dela eta horrek oso ahalegin ekonomiko altua suposatzen du udalarentzat, ikusita gainera hasierako planteamendua bi urtetan gastua banatzea zela baina orain gastu osoa urte batean egikaritzea eskatzen dela, eta bukatzeko ikusita ere obra hau egiteak ez duela bermatzen internet zerbitzua bailaran izatea, obrarekin bakarrik azpiegitura egiten delako, hau da bildutakoek hartzen duten erabakia:

Hau guztia eztabaidatu ondoren bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **2017-2019 azpiegitura planean sartutako banda zabalaren proiektuari eta dirulaguntzari uko egitea.**
- **Nasertic enpresarekin sinatutako elkarlan hitzarmena 2018ko martxoaren 23ko batzarrean onartutakoa, bertan behera utzi, proiektua ez delako garatuko.**
- **Erabaki hau jakinaraztea Nafarroako Gobernuako Toki Administrazioiko Departamentura eta Nasertic enpresari.**

6.- Aizarotz kontzejuko izateko prozedurari hasiera ematea.

Alkateak adierazten du Aizarotzko bizilagunak kontzeju izateko ekimena sustatu zutela, Nafar Gobernuan aurkeztu zituzten ekimena bultzatzen zuten 62 bizilagunen sinadurak, baina Nafar Gobernuak egiten dizkien eskakizunei erantzuna ematerakoan udalari babeska eskatu diote, eta udal ekimen bezala tramitatua izan dadin eskatu, Aizarotzko kontzeju izateko prozesua.

Nafarroko Toki Administrazioiko Foru LEgaren 43. Artikuluan zehazten da nola sortu ahal diren kontzeju berriak.

“La iniciativa podrá partir de los vecinos residentes en el territorio que haya de ser base de la entidad, o del ayuntamiento.

2. La iniciativa vecinal requerirá petición suscrita por la mayoría de los vecinos, dirigida a la Administración de la Comunidad Foral.

3. La iniciativa municipal requerirá la adopción de acuerdo con el voto favorable de las dos terceras partes del número de hecho, y en todo caso de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación.

4. Ejercitada la iniciativa, el procedimiento a seguir por la Administración de la Comunidad Foral exigirá el cumplimiento de los siguientes trámites:

a) Información pública vecinal por plazo no inferior a un mes, si la iniciativa hubiese partido del ayuntamiento.

b) Audiencia en el mismo período al ayuntamiento, si la iniciativa hubiese partido de los vecinos.

5. No habrá lugar a la continuación del procedimiento si existiese oposición a la constitución del Concejo manifestada por escrito por la mayoría de los vecinos o por el ayuntamiento mediante acuerdo adoptado por la mayoría a que se refiere la norma 3.^a

6. La resolución definitiva corresponderá al Gobierno de Navarra, previo informe de la Comisión de Delimitación Territorial, y si fuese favorable a la constitución del nuevo Concejo, comportará la determinación de los límites territoriales a los que se extenderá la jurisdicción de la entidad y la correspondiente separación del patrimonio. Se publicará en el "Boletín oficial de Navarra", y se comunicará a la Administración del Estado a efectos de la inscripción en el Registro de entidades locales."

Legeak agintzen duena jarraituz eta Aizarotzko bizilagunek sustatu duten ekimena bereganatuz, Basaburuko udal batzarra osatzen duen gehiengoak, ondoko erabakia hartzen du:

- **Nafarroako Toki Administrazioako 1990/6 Foru Legearen 43. Artikuluaren baitan onartzea Aizarotz herria kontzejua izateko prozedurari hasiera ematea eta akordio hau argitaratua izan dadin agindu Nafarroako Aldizkari Ofizialean.**
- **Erabaki honen jakinarazpena Nafar Gobernuako Toki Administrazioako Departamentura bidali.**

Alkateak aipatzen du gai zerrendan sartu gabeko presazko gai bat dagoela aztertzeko, Beramendiko industrial gunearen udal planaren dokumentuan egindako aldaketak onartzea.

Bildutakoek aho batez onartzen dute gai zerrenda sartzen ondoren zehazten dena:

Beramendin industrial gunea egiteko udal planaren egiturazko aldaketa.

Alkateak azaltzen du udalak hasiera batez onartu ondoren, eta egiturazko aldaketa izanik Nafar Gobernura bidali zuen dokumentua, eta handik hainbat txosten helarazi dituzte dokumentuan aldaketa batzuk egin behar direla eskatuz.

Gainera Dorrea Gaztandegiarekin egindako bileraren ondoren, beraien nahia haunditzea denez, lursail hori ere industrial gunean sartzeko onespena eman zuten. Hortaz funtsean sartu beharko liritekeen aldaketak hauek dira:

- Dorrea Gaztandegiaren lursaila industrial gunean sartzea.
- Konsolidatu gabeko hiru lurra jartzen duen tokian urbaniza gabeko lurra jartzea.
- Bideragarritasun ekonomikoaren memoria osatu.
- Azpiegituren azterketa ere osatu.
- Justifikatu proiektuaren oinarria eta industrial gunearen kokapena.

Hauek guztiak biltzen duen dokumentua prestatuko du arkitektoak, batzarrak onespena ematen badio eta hilabeteko epea ireki jende aurreko esposizio publikorako. Hau guztia ikusita Basaburuko Udaleko batzarrak aho batez ondoko erabakia hartzen du:

-Onartzea Beramendin industrial gunea egiteko udal planaren egiturazko aldaketa dokumentuari egin behar zaizkion aldaketak eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu izan dadin akordio hau agindu.

7.-Moziok.

Alkateak adierazten du Martxoaren 8aren Emakumeen Nazioarteko egunaren inguruan Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatetik, ondoren transkribatzen den adierazpena bidali dutela:

“ Gaur duela urtebete, nazioarteko mugimendu feministek egindako deialdi historikoak herritarrei galdegin zien egoera jasangaitz baten inguruan, non eta XXI. Mendian beste-betean egiturazko desberdintasunak mantentzen baitira emakumeen nahiz nesken bizitzetako esparru guztietan. Erantzunak antolatzaileen itxaropen guztiak gainditu zituen; milioika emakume atera ziren kalera emakume guztiendako eskubide guztiak aldarrikatzeko, hausnarketa andana sortu ziren, baita zenbait mugimendu ere, eta azaleratu zituen egun horretan munduko hainbat tokitan aldi berean egin ziren aldarrikapenak eta eskaerak.

Herritarren gehiengo zabal batek kaleetan egindako erakustaldi horrek- parte-hartzeak, aniztasunak eta horizontaltasunak gidaturik- emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak giza-eskubideen urratzean kokatu zituen, eta dei egin zien herritarrei, gizarte-eragileei eta administrazio publikoei buru-belarri jarri dezaten berdintasuna sustatzen, politikoa publikoetan sakontzen eta benetako berdintasuna ahalbidetuko duten neurri eta baliabideak ezartzeko lan egiten.

Gaur, urtebete geroago, jakitun gara egindako bideaz eta lorpenez. Baina badakigu oztopoak daudela eta oraindik ere badela bide luzea gure helburua lortu arte, hain zuzen, gizarte justu, demokratiko eta berdintasunezkoak lortzea eta eraikitzea, eta askatasunean eta baldintza zein aukera berdintasunean. Geure bizitzetako esparru guztietan eta mundu osoan.

Berdintasunerantz dugun bide luzean norabide bat baino ez dugu aurreikusten, alegia, aurrerapausoak ematen jarraitzea. Bizitzaren jasangarritasuna- bizitza guztiena- eta hura baldintza berberetan bizi ahal izatea, horra gure helburuak. Horregatik geure egin nahi dugu honetako aldarri hau: **Orain inoiz baino gehiago bultzada feminista, pausu bat ere ez atzera!**

Horregatik guztiagatik, toki erakunde garen aldetik, honako konpromiso hauek adierazi nahi ditugu:

- **Toki- esparrutik jarraitzea berdintasunaren aldeko legeak eta politika publikoak bultzatzen.**
- **Gure herrietako emakumeen behar zehatzak ikusarazten eta egun indarrean jarraitzen duten desberdintasun adierazpen guztiei dagokien neurria ematen jarraitzea.**
- **Emakume eta gizonen arteko ezberdintasun egoera guztiak gainditzeko jarduketak ezartzea.**
- **Mugimendu feministari laguntzea bere borroka eta eskaeretan.**

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako adierazpena.

8.- Batzordeen informazioa.

- Gizarte Politika Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Astlehenean izan zuten batzordeko bilera eta adinduen gelaren kudeaketa egin behar duen lan taldeko ordezkaria bertaratu zen, gelaren kudeaketari buruz hitzegitera eta bertan egin behar diren ekintzei buruz. Gelaren inaugurazioa martxoaren 21ean egingen da.

Osasun programen dirulaguntza atera da eta eskaera prestatzen ari dira batzordean.

Bestetik Gizarte zerbitzuetako mankomunitateko bileran, otsailaren 27an, urteko iharduera programaren azapenak eman ziren eta aipatu Leitzako udalarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmena Berdintasun Teknikariaren kontrataziorako berritu dela.

-Kirol Batzordea. Bakartxo Ripaldak ematen du informazioa.

Pala Txapelketaren finala martxoaren 21ean izanen da Latasa. Martxoaren 9an Raketistak dokumentala eskeiniko da Apeztegi berrin arratsaldeko 19etan.

Maiatzaren 1eko mendi martxaren ibilbidea prestatzen ari da batzordea eta zehaztu dute BTT txapelketarako data, maiatzaren 19an izanen da.

-Ogasun Batzordea. Bakartxo Ripaldak ematen du informazioa.

Otsaileko fakturak onartu ziren eta kontzejuekin egiten diren kontuak (zirkulazio zergaren ekarpena, uraren kontuak, administrari gastuan banaketa...) aztertu eta onartu ziren ere. Kontzejuekin bilera eginen da kontuak aurkezteko martxoaren 13an.

- Hezkuntza Batzordea. Esther Lakastak ematen du informazioa.

Eskola kontseiluko bilera egin zen eta bertan onartu ziren 2018ko kontuak, 2019ko aurrekontua 20.600 euro ingurukoa eta onespena eman zitzaion udalak Hezkuntza Departamentuan aurkeztutako diru laguntza eskaerari, kanpoko ballak aldatzeko.

Bukatzeko jardunaldi jarraipenaren inguruan zalatzak sortu direnez departamentuan argitzen ari direla aipatu zen.

2020. urtera begira 3 ume berri sartzea aurreikusten da baina 12 ateratzea, horrek suposatuko du, egonen diren 69 ikasleak 6 taldetan antolatuko dituztela, 2 talde haur hezkuntzarako eta 4 talde lehen hezkuntzarako.

8.- Informazio orokorra.

- NUFK etik langabetuen materialaren gastua diruz laguntzeko eskaera onartu dela jakinarazten dute eta 1.850,11 euroko dirulaguntza ordainduko dutela.

- Korrika Kultura. Onartu da kilometroa erostea, eskola ondoan dagoena izanen da, eta administrazio publikoa izanik, erosketa honen kontratua sinatu, transparentziaren inguruan hala eskatzen dutelako.

Korrikaren inguruan hainbat ekitalde antolatu dire eskualdean:

- Martxoak 16, bertso desafioa Itsasoko elkartean eta ondoren afaria.

- Martxoak 17, Gartzarongo elkartean Dani Martirenak eta Ana Ibañezek Cosimoren katiuskak album ilustratuaren aurkezpena eginen dute.

- Martxoak 22, Larraintzarko zentro zibikoan, Iñaki Larrayoz musikariaren emanaldia, arratsaldeko 19etan.

- Martxoak 29, 19:30etan Apeztegi berrin, Abalantxa musikariekin kantaldia.

-Martxoak 30, Etxalekuko biltokian Iñaki Perurena "Harria,maitasun istorioa" kontakizuna eta erakustaldia.

- Martxoak 31, Erason Laburbira 2019, film laburraren proiektzioa eta zuzendariarekin solasaldia.

- Apirilak 5, Aizarotzen zirku ikuskizuna arratsaldkeo 17:30etan, ondoren Korrika Ginkana eta txokolatada.

Bukatzeko eta egun berean baina Larraintzarko zentro zibikoan Txilloardegiren klika dokumentalaren proiektzioa egingen da.

9.-Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez arratsaldeko 19:30 ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.